

Ohar bat Zuberoako bokal asimilazioen kronologiaz¹

A note on the chronology of vowel assimilations in Souletin

Manuel Padilla-Moyano*
UPV/EHU & HSE University (Mosku)

ABSTRACT: Beyond the well-known vowel interactions that took place in the whole Country of Soule (i.e., the changes conventionally noted as [e + a > ia], [o + a > ua] & [ü + a > ia]), more recently other changes usually termed as *vowel assimilations* started; they can be formulated in a very simplified way as [í + a > í] & [ú + a > ú]. Today, these secondary changes are one of the most remarkable intradialectal differences within Souletin Basque. This paper focuses on the chronology of Souletin vowel assimilations. Firstly, I propose an overview on what is known about the topic (§ 1); secondly, I bring some evidence from old Souletin texts (§ 2), and analyze some data closer to the present-day language (§ 3). Then I will deal with the chronology and spreading of vowel assimilations (§ 4), and draft some conclusions (§ 5).

KEYWORDS: Basque phonology; Souletin Basque; Souletin texts; intradialectal variation; vowel assimilation; low vowel deletion.

LABURPENA: *Zuberoa osoan obratu ziren bokalen arteko elkarreaginez harago (hots, konbentzio ordinarioan [e + a > ia], [o + a > ua] & [ü + a > ia] arauetan adierazten direnak), une batetik aitzina bokal asimilazio deitu obi diren aldaketa berriagoak abiatu ziren, arras modu sinplifikatuan [í + a > í] & [ú + a > ú] bezala formula daitezkeenak. Egun, aldaketa bigarrendar horiek zuberearen barneko desberdintasun markagarrienetarik dira, beharbada ezaugarri intradialektal nagusia. Lan honek Zuberoako bokal asimilazioen kronologia du jomuga. Gaiatz dakiguna bildurik (§ 1), Zuberoako testu zaharren lekukotza ekarriko dugu (§ 2), eta egungo hizkuntzatik hurbil diren da-*

¹ Beti lagutzeko prest, José Ignacio Hualdek onartu zuen ene doktorego tesiarentzat txostengile izatea, iruzkin ezin pagatuzkoak eginik; geroztik, haren laguntza eta babesa ez dira hor bukatu. Beraz, euskalari guztiak bezala, harekiko zorretan nago. Lan xume honetan José Ignacio handiak jorratu dituen gaietako batean barnatzen naiz, hura Ameriketan eta ni Errusian izanik, Zuberoan batzen gaituena.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Manuel Padilla-Moyano. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – manuel.padilla@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0002-2051-2885

Nola aipatu / How to cite: Padilla-Moyano, Manuel (2023). «Ohar bat Zuberoako bokal asimilazioen kronologiaz», *ASJU*, 57 (1-2), 773-783. (https://doi.org/10.1387/asju.25925).

Jasoa/Received: 2022-09-27; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

tuak aztertuko ditugu (§ 3). Ondoren, asimilazio bokalikoek kronologiaz eta hedaduraz arituko gara (§ 4), ondorio batera etortzeko (§ 5).

HITZ GAKOAK: euskararen fonologia; zuberera; Zuberoako testuak; aldakortasun intradialektala; bokal asimilazioak; beheko bokalaren ezabatzea.

1. Sarrera

Bokalen arteko elkarreraginak euskararen fonologiaren ezaugarriak nabarrenta-koak dira, aldakortasun diatopikoa gradu gorenera eramaten baitute. Gaiaren erreferentziatzko deskripzio sistematikoan —«a nearly exhaustive catalogue»— bakarrik absolutibo singularrean gertatzen diren aldaketak kontuan hartuz 29 eredu deskribatu dute (Hualde & Gaminde 1997). Horregatik, eta are gehiago fenomeno bereziki hautemangarri eta maiztasun altukoa izanik, bokalen arteko elkarreraginak euskal hizkeren ezaugarritzatzeko elementu baliagarriak dira. Hortaz, 29 eredu haietara begiratzean, gauza markagarria da Zuberoa osoa mota bati egokitzea, eta mota hori soilik Zuberoan ezagun izatea.

1. taula

Bokalen arteko elkarreraginak Zuberoan (Hualde & Gaminde 1997: 212)

bilkura	<i>a + a</i>	<i>e + a</i>	<i>i + a</i>	<i>o + a</i>	<i>u + a</i>
emaitza	<i>á</i>	<i>ia</i>	<i>ia</i>	<i>ua</i>	<i>ia</i>

Banaka hartuta, 1. taulak erakusten dituen aldaketak beste hainbat lekutan ere dira ezagun, baina ez denak batera, konbinazio jakin horretan. Zubereraren bere ezaugarritzatze orokorrean, Zuazok (1989: 620-623) bokalen arteko elkarreragi-nei ere arreta eman die, berarenganainoko aipamenak bilduz eta ordenatuz. Lehenik, Bonapartek (1869: 257 [*Observations*, xxix]) *euphonies* deitu zituen aldaketak: (1) [*o > u / _V*] (*otsua*), (2) [*ě, ů > i / _V*] (*měhña, xahña < mēhč, xahũ + a*), eta (3) [*e, ü > i / _V*] (*semia, eskia*). Zuazok xehetasunez biltzen ditu, besteak beste, [*ü + a > ia*] arauari ezagutzen zaizkion salbuespenak (Bonaparte 1869: 34; Gèze 1873: 20; Lafon 1962: 86), eta [*ü, ů > i / _V*] arauaren tarteko emaitza bide den *uya* (Lafon 1951: 318; Sarasola 1983: 173-178), Leizarragaren zubereraren hiztegiñoa eta Zalgizeren erran-zaharrak lekuko.² Bigarrenik, Zuazok «zubereran bete ohi diren asimilazio zenbait» aipatzen ditu, hots, lan honek arrangura dituen aldaketak, ondoko bi erregeletan formulaturik:

i + a > í: (égin) din (dían), (égin) düükínin (düükianian), zin (zían), hi(r)ín (hirían)... Bada salbuespen bat hala ere: baldin eta aipatu bokalok euren artean izan-

² Arrazoibide horri objektuorik egin gabe, preseski ohartarazi nahi dut Zalgizeren erretrauek arazo franko pausatzen dutela *zubererazko* testutzat hartuak izateko: adibide batez ilustratzeko, *-te* pluralgilea ergatiboan (*baitiutze* 35, *dute & dutena* 116). Menturaz, Oihenartek bezala, Zalgizek distantzia hartu zukeen bere sort hizkerarekiko —gauzarik ohikoena letra gizon batengan—. Are gehiago, 141. atsotitza bi gisatara da emana, bigarrena preseski Zuberoako antzora eskainia: *Gainian eder, barnian lander. Zuberoan: Gañian gaillo, barnian harro*.

dako *-r-* galdu ondoren suertatu badira elkarren jarraian, ez da orduan asimilaziorik burutu: *zia* (*zira*), *bagia* (*bagira*), *beitia* (*beitira*)...

ú + a > ú: *gaxtúk* (*gaxtúak*), *júnen* (*júanen*), *gozúk* (*gozúak*)... Oraingo honetan ere badira salbuespenak: a) ergatibo singularrean deklinatutako hitzak —horrela absolutu pluralekoekin nahasten ez direla—: *ardúak*, *lanhúak*, *phozúak*, *billúak*... eta b) mailegu zenbait, alegia biarnesez *-ú* eta fr. *-on* amaiera dutenak.³ (Zuazo 1989: 622)

Jakina, bokalen arteko elkarreraginetan zein bokal asimilazioetan hainbat aldaketa metazen da. Hualdek (1993: 297-298) prozesu fonologiko horiek banaka azaldu ditu; hona hemen, hurrenkera kronologikoan:

1. Erdiko bokalen goratzea (*Mid Vowel Raising*): V [-low] → [+high] / _V. Horren arabera, [e + a > ia] & [o + a > ua] aldaketak obratzen dira.
2. *ü*-ren desborobiltzea (*Unrounding*) > Desborobiltzea bokal aitzin: V [-back] → [-round] / _V. Hortik [ü + a > ia] & [ü + e > ie] aldaketak datoz.
3. Beheko bokalaren ezabatzea (*Low Vowel Deletion*): /a/ → Ø / V _X_o. Azken aldaketa hau konbentzioz *bokal asimilazio* deitzen ditugun arauetan gauzatzen da: [i + a > i] & [ú + a > ú].

Hualderi jarraikiz, Zuberoan singularreko ergatiboaren eta inesiboaren formak opako gerta daitezke, inflexio oinaren bukaerako bokalek goraturik edo desborobil-durik baitirudite, horien ondoan beste bokalik ez izanik (ikus 1. adibidea). Forma horiek beheko bokalaren ezabatzearen ondoriozkoak dira.

- (1) Bokalen arteko elkarreraginak izenaren inflexioan (Hualde 1993: 298)

UNINFL	ABS SG	ERG SG	INES SG	ERG INDEF	ERG PL
<i>étxe</i>	<i>etxia</i>	<i>etxik</i>	<i>etxin</i>	<i>etxek</i>	<i>etxiék</i>
<i>sóho</i>	<i>sohúa</i>	<i>sohúk</i>	<i>sohún</i>	<i>sóhok</i>	<i>sohuék</i>
<i>múndu</i>	<i>múndia</i>	<i>múndik</i>	<i>múndín</i>	<i>múndük</i>	<i>múndiék</i>

Beraz, singularreko ergatiboaren eta inesiboaren formek erdiko bokalaren goratzea ala desborobiltzea iragan dute, bai eta beheko bokalaren ezabatzea, honako hurrenkeran:

	/soho-a/	/soho-a-k/	/múndü-a/	/múndü-a-k/
1. Mid Vowel Raising	<i>sohua</i>	<i>sohuak</i>		
2. Unrounding			<i>múndia</i>	<i>múndiak</i>
3. Low Vowel Deletion		<i>sohuk</i>		<i>múndik</i>

(Hualde 1993: 298)

2. Zuberoako testuen lekukotasuna

Atal honetan bokal asimilazioen lekukotza aztertuko dugu zuberera historikoaren corpusaren argitan.⁴ 1770 arte ez da fenomenoaren isla grafikorik; hortik aitzina han-

³ Egiazki, bigarren salbuespen hori ez da existitzen, aipatu maileguez zubereraz ere «-ü amaiera» dutelako, hots, /u/-tik bereizten den fonema. Biarnesetikako maileguei lotzekoa den /ü/ sudurkari *berriaz* —berria /ü/ etimologikoaren pare— ikus (Padilla-Moyano 2017: § I. 1 atala).

⁴ Zuberoako testuen corpusaren osakeraz, ikus Padilla-Moyano (2017: § 3.2 «Atalasean»).

hemen kausitzen dira horren herexak. Jarraian, XVIII. mendearen bigarren erditik aitzinako lau testutako datuak aurkezten dira.

2.1. *Saint Julien d'Antioche* (Sarrikotapea, 1770)

Beheko bokal ezabatzearentzat datatzen ahal ditugun lehen agerraldiak *Saint Julien*en ageri dira, hots, argitaratua den trajeriarik zaharrenean. Sarrikotapean antzeztu zuten, 1770ean, errejenta eta izkribuaren kopiagile nagusia Simon d'Altxürrüt izanik (Loidi 2004: 5-7). Badira *i* ondoko adibideak, hala izen morfologian (*ifernialat* < *ifernialat* 254, *tapiz pila* < *tapiz piala* 1261-di,⁵ *triate bazterrila* 1285-di, *mahainin* < *mahainian* 134-di, *ezustin* < *ezustian* 635-di) nola aditzarenean (*dila* < *diala* 809, *zütinian* < *zütianian* 031, *zianin* < *zianian* 1051). Horiekin batera, *u* ondoko adibiderik ere kausitzen ahal da: *aingürik* [ABS PL] *tortxuk* [ABS PL] *eskietan* 161-di, *emazte gaiztuk* [ERG SG] *senhar gaizturi* [DAT SG] *bezala* 632, *jun* 1261-di & 1285-di.

2.2. *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza* (1782)

Peillen Egiategiren *denin* 'denean' bezalako etsenplu bakanetan oinarritu zen beheko bokalaren ezabatzearen hastapena XVIII. mendean datatzeko.⁶ Jüsef Egiategiri doakionean, bada zer emenda. Galdutzat jotzen genuen haren eskuizkribu bat, *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza*, berriz aurkitua izan da (Ugarte 2020; Segurola Azkobieta & Ugarte 2021), eta haren edizioa ere berriki atera da (Padilla-Moyano 2022). Eskuizkribua oso aberatsa da zuzenketa eta gainidatzietan; besteak beste, Egiategik bere burua zuzentzen du bere hizkeraren ezaugarri fonologikoa den beheko bokalaren ezabatzearen estaltzeko. Horrela, lehen idatzaldiko *osagarriren*, *anderiri*, *herenila*, *dinak* edo *zereiola* bigarren idatzaldian *osagarriaren*, *anderiari*, *hereniala*, *dianak* edo *zereiuala* bihurtzen dira, hurrenez hurren. Izkribuan gandi Egiategik halako 140 autozuzenketa utzi du, eta beste berrogei bat alditan zuzentzea ahanzi du. Datu horiek azterturik, Egiategiren hizkeran beheko bokalaren ezabatzearen testuinguruak honakoak dira:

1. [*i* + *a* > *î*]. Izen morfologian etsenplu guztiak singularrekoak dira, genitiboan (*osagarriren* 15r), datiboan (*beharlüziri* 15v) eta adlatiboan (*lürrila* 11r). Aditz morfologian, araua *-ala* atzizkia (*zaitekila* 43r) zein *-an* atzizki menderatzailea eta horren eransketarik bat gehitzean betetzen da (*eztina* < *eztiana* 19v, *elirokinik* 16r, *dino* < *diano* 'dueno' 3v). Bere burua zuzentzean, zenbaitetan Egiategik behar ez den *a* berrezartzen du, halako hiperzuzenketa (*batekiala* 'batekila' 37r, *dadian* 'dadin' 56r).
2. [*u* + *a* > *u*]. Izen morfologian genitiboan (*sanoren* 30v), datiboan (*Jinkori* 42r) eta adlatiboan (*heriola* 30v) lekukotzen da; aditz morfologian, *-ala* atzizki

⁵ Orrialdeetarako darabilgun notazio sisteman, «-di» honek *didaskalia* adierazten du. Ikus orobat § 2.3.

⁶ Peillen *Filosofo huscaldunaren ekbeia* liburuaz ari da. Testua ez da erraz datatzekoa: Larramendiren hiztegiaren eragina da elementu seguruen (beraz 1745 ondokoa); bestenaz, eskuizkribuaren kopiagileak 1782.eko data agerrarazi arren, bigarren parteak Belako Zaldunaren heriotzari erreferentzia egiteak testua «1796-1797.ean berriz ukitu zuela» erakusten du (Peillen 2011: x).

konpletiboa eranstea (*zereiola* ‘ziola’ 16r).⁷ Egiategirengan beheko bokalaren ezabatzeak erroak ere hunki ditzake: *gutzala* < *guatzala* 17v.

2.3. *Sainte Elisabeth de Portugal* (Eskiula, 1750-1810)

Testua Eskiulan datatua izan da, ca. 1810, baina azken orrialdeak 1750ekoak dira (Segurola Azkonobieta 2015). Izkribuan gaindi beheko eta erdiko bokalen ezabatzeak berrogei bat agerraldi du, horren herena *didaskalietan*, hots, kopistaren antzez-oharretan —agian bertan laxoago idazten duelako—. Etsenpluak hiru bilakabidetan sailka daitezke:

1. [*i* + *a* > *î*]: *büriren* 1138, *praubik* [ABS plural] 190-di, *ginandilarik* ‘ginelarik’ 1411. Horiekin batera *büriaren* 874, *praubiak* 191, 192 & 206-di (guztiak ABS plural) & *ginandian* 1424.
2. [*ú* + *a* > *û*]: *tortxuk* 1317-di & 1372-di.
3. Erdiko bokalaren ezabatzea [*i* + *e* > *î*], hasikin gisara: *zütit* < *zutiet* ‘zaituztet’ 1506 —baina *zütit* 1, 236, 463.

2.4. *Uscara Libria* (ante 1814)

Vinsonentzat (1891: § 132a) «L'édition doit être du dernier tiers du xvii^e» —du darik gabe xviii zuen gogoan—, eta zuhur iruditzen zait Iraultza ondoko urteetan datatzea.⁸ Vinsonen hitzetan, «On ne connaît pas l'auteur de ce livre de piété, mais à en juger par l'orthographe et le style, on peut dire qu'il était originaire de Barcus» (*ibidem*). Vinsonek Barkoxeko euskara identifikatzeko argudioa azaldu ez arren, zubereraren ezaugarri intradialektal nagusia den beheko bokalaren ezabatzea gogoan izan behar zuen. Bada, *Uscara Librian* horren adibide ugari ediren daitezke, bereziki «Alexis Saintiren Bicitce admirablea» izenburua duen atalean (211.-228. orrialdeak). Kontu erretratze zehatzik ekarri gabe, aski izan bitez honako pasarte hauek: *Haien artin igaran ziradin feitak haier jüntatzen zilarik* 223 & *Inperadoria ützüli züzün ordin Eufemienen aldilat zoiñ khantín present beitzin* 224. Aldiz, *u* ondoko asimilazioaren adibide bakana atzeman dut: *Jinkuk* ‘Jinkoak’ 223.

3. Zuberoako bokal asimilazioak *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean*

*EHH*Aren datuak lagungarri zaizkigu bokal asimilazioak xx. mende bukaeran zertan ziren konprenitzeko. Hortaz, hamalau mapa aztertu dut,⁹ eta bertako datuak 2., 3. eta 4. tauletan hustu.

⁷ Adibide horietan [u] ahoskera estaltzen duen <o> grafia etimologikoa datzala pentsatzeko arrazoiak ditut.

⁸ Testu honen datazio aferaren berri zehatza jakiteko, ikus Padilla-Moyano (2017: 49. oin-oharra).

⁹ Hona hemen: 1054 «les bœufs» (*i* + *a*, ABS PL), 1055 «le bœuf mange de l'herbe» (*i* + *a*, ERG SG), 1057 «il faut donner de l'herbe au bœuf» (*i* + *a*, DAT SG), 1060 «la force du bœuf est grande» (*i* + *a*, GEN SG), 1064 «dans le village il n'y a pas grand monde» (*i* + *a*, INE SG), 1068 «tes ânes sont devant la porte» (*o* + *a*, ABS PL), 1070 «l'âne mange l'herbe» (*o* + *a*, ERG sg), 1073 «que donnes-tu à ton âne ?» (*o* + *a*, DAT SG), 1077 «les oreilles de l'âne sont grandes» (*o* + *a*, GEN sg), 1093 «l'enfant est tombé dans le trou» (*o* + *a*, INE SG), 1056 «les bœufs mangent de l'herbe» (*i* + *e*, ERG PL), 1061 «la force des boeufs est grande» (*i* + *e*, GEN PL), 1071 «les ânes mangent l'herbe» (*o* + *e*, ERG PL) & 1078 «les oreilles des ânes sont grandes» (*o* + *en*, GEN PL).

2. taula

EHHAko datuak: beheko bokalaren ezabatzea *i* ondoa

	<i>i + ak</i> ABS PL	<i>i + ak</i> ERG SG	<i>i + ari</i>	<i>i + aren</i>	<i>i + an</i> INE SG
Altzai	iđiak, beharik	iđiak	iđiaġ	iđiaēn	
Altzürükü	iđiak, estik	iđiak	iđijé ⁱ	iđien, árdjan, ardien	herín
Barkoxe	iđik	iđik	iđiaġ	iđiaġin	herín
Domintxaine	iđiak, aspják	iđiak	Iđjári	iđiaġin	
Eskiula	iđiak, behík, titik, herik	iđik	iđjá ⁱ (?), nauśi, iđiaġ	ardiaġin, iđian	herín
Larraine	iđiak	iđiak	iđiaġ	iđian	
Montori	iđiak	iđiak	iđiaġ	iđjá ^c n	heRín
Pagola	iđiak	iđiak, iđik	idiaġ	iđiaġin	heri:n
Santa Grazi	iđiak	iđiak	iđiaġ	iđian	
Sohüta	iđik	iđik	iđi:	—	herín, hérin
Urđiarbe	iđik	iđik	iđiaġ	iđiaġin	herín
Ürrüstoi	iđik	iđik	iđjá ⁱ ardjái	iđian	herín, herían

3. taula

EHHAko datuak: beheko bokalaren ezabatzea *u* ondoan

	<i>o + ak</i> ABS PL	<i>o + ak</i> ERG SG	<i>o + ari</i>	<i>o + aren</i>	<i>o + an</i> INE SG
Altzai	ástúk, etjekú:k	ástúk	ástóaj	ástwáen, ástwán, ástwáan	ġilhúan, aġsúan
Altzürükü	ástúk, olúk	ástúk	ástóái, ástwéġ	ástú ^e en	silhú:n
Barkoxe	ástú:k, ondokúk, olúk	ástú:k	ástóaj	ástóajin	ġilhún, khampún
Domintxaine	ástwak	ástwák	ástwári	ástwáin	ġilhwán
Eskiula	ástúk, onddúak	—	ástóúġ	ástóen	itfaśún, ġilhún
Larraine	ástúak	ástúk	ástóaj	ástúan	ġilhúan, otójan
Montori	ástúak, étŷenġúk, aġśúk, olúk, khantýkúk, khantýkúak	ástuk (?)	ástúej ástwáġ, etŷenġwáġ	ástún	silhúan, lephún, byrójan
Pagola	ástwák, olúk	ástúk	ástwáin	ástwáin	ġilhú:n, silhwán
Santa Grazi	ástúak	ástúk	ástúaj	ástún	ġilhúan
Sohüta	ástúk	ŷofúk, bilhayarúk	ástwí	ástúen	ġilhún
Urđiarbe	ástúk, mandúk	ástúk	ástwáġ	ástwáin	ġilhún, khampún
Ürrüstoi	ástúk	ástúk, ŷófuk	ástóaj	ástúan	itfaśúan, lejhún, otójan, otoan, ástún

*EHHA*ko mapek irudi mudakorra erakusten dute, testuinguruaren arabera aldatzen dena. *Idiak* ABS PL > *idik* aldaketak Zuberoaren iparraldeko eremua definitzen du: Sohüta, Ürrüstoi, Pagola, Urdiñarbe, Barkoxe, Eskiula. Ohartarazi behar da eremu bertsuan berdin betetzen dela *idiak* ERG SG > *idik*, zenbait euskalarik bi forma horien arteko kontrastea defendatu arren. [*i + a > i*] arauak sendoago dirudi inesibozko formetan, aipatu herriei Altzürükü eta Montori gehitzen baitzaizkie, espazioan jarraikortasuna erakusten duen eremu bat osatuz. Aldiz, datibo singularraren morfema eranstea mapak Sohüta baizik ez du markatzen.

*EHHA*ko datuen arabera, *u* ondoko bokalaren ezabatzea gehiago hedatu dateke. Bada, *astúak* ABS PL > *astúk* bezalako emaitzak Sohütan, Ürrüstoin, Pagolan, Urdiñarben, Barkoxe, Eskiulan, Altzürükün, Montorin eta Altzain bildu dira. Eta *astúk* ERG SG Zuberoa kasik osora hedatu da, salbuespena Domintxaineko lekukoa delarik.

Gehiago dena, *EHHA*ko datuek beheko bokalaren ez ezik, erdiko bokalaren ezabatzea ere badela iradokitzen dute; testu zaharretan ere horren zantzuak atzeman daitezke (ikus § 2.3). Beheko bokalarekin gertatzen den bezala, erdikoa *i* zein *ú* ondoren ezabat daiteke. Halere, 4. taulako datuetan ez da eremu lektal trinkorik hautematen, *e*-ren ezabatzea era kontsistentean bakarrik Santa Grazin ageri baita. Horrezaz gainera, *o* ondoko ergatibo pluralean Altzai, Montori eta Urdiñarbeko lekukoek asimilazioa egin dute.

4. taula

*EHHA*ko datuak: erdiko bokalaren ezabatzea

	<i>i + ek</i> ERG PL	<i>i + en</i> GEN PL	<i>o + ek</i> ERG PL	<i>o + en</i> GEN PL
Altzai	iðiek	ardien	aštúek, ajsúk	aštuén
Altzürükü	iðiek	iðjén	aštúek, aštwek	aštwn
Barkoxe	idjék	iðién	aštwek	aštwn
Domintxaine	iðiek	iðjén	ástoék, ajswek, aštwek	aštwn
Eskiula	iðjék	iðién	—	ástoén
Larraine	iðiek	iðién	aštúek	aštuén
Montori	iðiek	iðién	aštuk	aštuén
Pagola	—	iðjén	aštwek	aštwn
Santa Grazi	iðík	iðín	aštúk	aštún
Sohüta	—	behien	aštwe:k	aštwn
Urdiñarbe	iðík (?)	iðjén	etjekúk	aštwn
Ürrüstoi	iðjék	iðjén	aštwek	aštuén

4. Noizdanik eta nondik hedatu dira Zuberoako bokal asimilazioak?

Ikusi dugunez (§ 2), Zuberoako bokal asimilazioen lekukotza XVIII. mendearen bigarren erdian hasten da. Haiekiko lehen erreferentzia, inplizitu bezain argia, Augustin

Chahok egin zuen 1848. urtean. Ondoko pasartean, atharraztarra bere sort hizkerari arrotz zitzaizkion asimilazioez baliatu zen Pettarreko apez bati arrapostu emateko:

Iracourtu ukhen-dit, Parisen *berin*, *Internacionalin*, goure contre izquiribatu-duçun letera ecinago-lucia, eta eçagutu-dit *mementin*, çu cinela jaon-apez-bat, sorthia *Petharrin*, Maüle *khantin*, gaizqui escolatia Bayonaco *hirin*, doctor handi ignoranten *artin*, ignorant-urguillutsu-bat *funtsin*; eçagun-beïta çoure lumati nounco ciren, nour ciren eta cer ciren: eta berantiago-gabe nahi deïçut igorri bi hitz arrapostu, hobequeïnic daquidan Bassaburuco uscara *eïgerrin*, bena ez *çourin*. («Apez-bati arrapostu», *Ariel*, 1848-7-25) [letra etzana nirea]

Beraz, badakigu 1848an basabürütar batentzat bokal asimilazioak ongi ezagunak zirela, eta *Petharreko*, *Maule khantüko* ezaugarritzat zituela; hainbeste, non aski zitzaizkiokeen bere solaskide anonimoaren salatzeke. Pasarteak fenomenoaren hamar agerraldi dakartza, hamarrak $i + a > i$ sailekoak, eta guztiak inesiboan. Peillenek (1992: 257) XVIII. mendean kokatzen du beheko bokalaren ezabatzearen abiapuntua:

Noizdanik agertu den Pettarrean diptongoen ezabatze hori? Lehenik badirudi —gaurko gipuzkeran bezala (*jün*, *mendün*, *kanpün*)— azken silabetan gertatu dela. Pastoraletan eta XVII-XVIII. mendeko eskuidazkietan ez da irakurtzen, behin ikusi dut Egiategiren obra nasaiean *denin* «denian» itxuraren lekuan. Ordukotz XVIII. mendean agian abiatu zen aldaketa ta Etxahunekin XIX. mende erditan Pettarran —bertsolari erraztasunez ote?— argi ta garbi dago eta Etxahunen eskutik idatzirik, ez gaur bildua, Jean Haritschelhar-ek erakutsi zigun bezala, famatu da gainera Etxahunen *Desertüko ihizik* eta ez, orain ere Basabürüan entzuten den *ihiziak*. (Peillen 1992: 257)

XIX. mendean, Chahorenaz gain beste testigantza bat mintzo zaigu ezaugarriaren hedaduraz: «*ia* se prononce comme en français, mais en appuyant généralement sur l'*i*. Dans une partie de la Soule (pays de Mauléon et de Barcus) on prononce cette diphtongue dans certains mots comme s'il n'y avait qu'*i*. On trouve des ouvrages écrits suivant cette prononciation» (Gèze 1873: 3). Geroztik, Gavelek (1921: 6-12) ohar mamitsuak egin zituen, adibidez, asimilazioak jendea arta handirik gabe mintzatzean entzuten direla, edo biarnesean ezaguna den prozesu batekin konparaturik, zubererarena barneko garapena dela. Zorigaitzez, deus ez zuen zehaztu fenomenoaren hedadura geografikoaz.

Larrasquet ere asimilazio berrien hedaduraz mintzo da, lausoki mintzo ere. Horien muga nonbait Zuberoa Beherearen eta Garaiairen artean kokatzen du, baina orain Basabürüaren eremu batera hedatu dela dirudi, maiztasun baxuagoak hastapen fasearen seinale izanik:

En Basse-Soule, les diphtongues sont contractées, sauf de très rares exceptions dues à des raisons particulières ; en Haute-Soule, les courants de contraction atteignent à peine le tiers du domaine et peut-être le tiers ou le cinquième des mots à diphtongues qui sont innombrables. (Larrasquet 1939: 17)

Peillenen arabera, Pettarreko euskaldunak «diphtongoen etsaiak dira», eta asimilazioak Basabürüan sartzen hasiak dira,¹⁰ han-hemen, haren ezagun batzuen mintza-

¹⁰ Zuazoren interpretazioan, Peillenek Larrasqueten (1939: 17) ondorioak berresten ditu, «baina, antza, Basabürüa bertara ere hedatuz joan da Pettarrako ohitura» (1989: 623). Oker ez banaiz, Larrasquetek jada eman zuen hedatze horren berri, Zuberoa Garaiko heren batean bederen.

tzeko manerari erreparaturik (1984: 249-250). Peillenek ez du, aldiz, diptongo eta hiatoen arteko bereizkuntzarik egiten, *kanbitü* < *kanbiatü* (diptongoaren desegitea) eta *khantín* < *khantían* (hiatoaren desegitea) zaku berean sartuz.

Beheko bokalaren ezabatzea xx. mendeko bigarren erdiko Basabürüan nola zen sartua ilustratzeko, Madalena de Jauregiberri anderearen hizkerari so bat egin diot. De Rijkek (1999) 1966. urtean erregistratu zuen alozartsa. Testuak 2.500 bat hitz du. Bertan *-i + ala* zazpi aldiz *-ila* bihurtzen da (*aitzinila*, *dila* —bitan—, *badila*, *zilarik*, *etzila*, *etzitila*), eta hamabi aldiz *-iala* mantentzen. Halaber, *i + an* > *in* ere ageri da: hala inesibozko formetan (*khantín*—bitan— eta *Zünharrin*), nola adizki batean (*zünin*); baina Jauregiberrik 83 aldiz *-ian* ekoitzi du. Gainerakoan, *u* ondoko ezabatzearen arrastorik ez da ageri.

5. Ondorioak

Zuberoako euskararen bokalismoan gertatu diren aldaketa berrienak, hots, euskalaritzaren tradizioan *bokal asimilazio* deitu ohi direnak —eta modu teknikoagoan *beheko bokalaren ezabatzea*— zubereraren barneko diferentzia nagusienetarik dira. Euskalaritzaren tradizioan aipatu ohi diren [*i + a > i̯*] eta [*ú + a > ú̯*] arauetz gainera, erdiko bokalaren ezabatzea ere badela proposatu dut, [*i + e > i̯*] eta [*ú + e > ú̯*] gisara formulatua. Azken aldaketaren zantzuak jada *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeriaren eskuizkribuan (ca. 1810) atzeman ditut, eta *EHH*Ako datuek fenomenoaren islatu dute.

Bokal asimilazioak segur eta oparo lekukotuak dira gutxienez xviii. mendearen bigarren erdiko lau testutan: *Saint Julien d'Antioche* trajerian (Sarrikotapea, 1770), *Sainte Elisabeth de Portugalen* (Eskiula, 1750-1810), Jüsef Egiategiren *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza* izkribuan (1782) eta *Uscara Librian* (Iraultza ondoko urteetan). Fenomenoaren agerpen grafiko goiztiarra testuinguru morfonologiko guztietan ageri da: /i/ zein /ú/ ondoren, izen nahiz aditz morfologian. Jakina, beheko bokalaren ezabatzearen testuinguru guztiak 1770-1780 urteetan ongi lekukotuak izateko, berrikuntzak lehenagotik abiatua izan behar zuen, baina horretaz honako aierua baikiz ez dugu egiten ahal: fenomenoaren belaunaldi bat edo bi lehenago hasi zela, hots, xviii. mendearen hastapenean.

Testu zaharren datatzeko eta espazioan kokatzeko ditugun arazoak gorabehera, ez da dudarik bokal asimilazioak Zuberoako iparraldetik abiatu zirela, nonbait Sohüta-Eskiula-Barkoxe herrietarik. Ondoko testuek (adibidez Etxahun Barkoxekoarenek) zein euskalarien deskripzioek bokal asimilazioak *Pettarra*, *Zuberoa Beherea* edo *iparralde laua* gisara izendatzen den eremu batean kokatzen dituzte, maizenik *Basabürüa*, *Zuberoa Garaia* edo *hegoalde menditsu* batekiko kontrastean. xx. mendeko testigantzek erakusten dutenez, beheko bokalaren ezabatzea Zuberoa Garairat hedatzen hasi da, eta mende akabantzan beheko zein erdiko bokalaren ezabatzea lekukotzen da, testuinguruaren arabera eremu geografikotan.

Harago, bi idazleren testuetarik bestelako informazioa idoki dezakegu. Lehenik, *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza* eskuizkribuan Jüsef Egiategik bokal asimilazioen desagerrarazteko xedez bere burua zuzentzea oso adierazgarria da. Bada, testu horretan Egiategi zuberotarrei zuzendu zitzairen, eta ez, Tartas, Oihenart edo Zalgizeren antzora, eremu zabalago bateko euskaldunei. Eta hala izanik ere, Egiategiri bokal

asimilazioen ondoriozko formak ez zitzaizkion egoki iruditu. Bigarrenik, Augustin Chahok ongi ezagutzen zituen bokal asimilazioak, eta aski zituen inoren zubereraren ezagutzeko, baina bere Basabürüko euskara *eijerrian* ez zituen nahi. Azkenik, *Saint Julien d'Antioch* (1770) eta *Sainte Elisabeth de Portugal* (1750-1810) pastoraletan ikusi denez, errejent-kopiagileek asimilazio bokalikoen ondoriozko formak proportzioz anitzez ere maizago grafiatu zituzten antzez-oharretan, ezen ez arizaleek deklamatzeko ziren pasarteetan.

Erreferentziak

- Bonaparte, Louis-Lucien. 1869. *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara : le guipuzcoan, le biscaien, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin, avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés...* Londres: Strangeways & Walden (Berrarg. in José Antonio Arana Martija, *Opera Omnia Vasconice* I, 175-442. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991).
- Chaho, Augustin. 1848. Apez-bati arrapostu. *Ariel* 1848/7/25.
- EHHA = Euskaltzaindia. 2010-2022. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. Bilbo.
- Gavel, Henri. 1921. *Éléments de phonétique basque*. RIEV 12. 1-542.
- Gèze, Louis. 1873. *Éléments de grammaire basque. Dialecte souletin*. Baiona: Lamaignère-ren alarguntsa.
- Hualde, José Ignacio. 1993. Topics in Souletin phonology. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque linguistics*, 289-327. Amsterdam: John Benjamins.
- Hualde, José Ignacio & Iñaki Gaminde. 1997 Vowel interaction in Basque: a nearly exhaustive catalogue. *ASJU* 31(1). 211-245.
- Lafon, René. 1951. La langue de Bernard Dechepare. *BAP* 7(3). 309-338 (Berrarg. in Jean Haritschelhar & Piarres Charritton, *Vasconiana*, 729-758. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999).
- Lafon, René. 1962. Sur la voyelle ü en basque. *BSL* 57(1). 83-102 (Berrarg. in Jean Haritschelhar & Piarres Charritton, *Vasconiana*, 95-112. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999).
- Larrasquet, Jean. 1939. *Le basque de la Basse Soule Orientale*. Paris: Klincksieck.
- Loidi, Ane. 2004. Antiokiako San Julianen pastorala (1770). *ASJU* 38(1). 1-133.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2017. *Analyse diachronique du dialecte souletin (XVI^e-XIX^e siècles) – Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa (XVI.-XIX. mendeak)*. Gasteiz, Bordele: UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigne-ko doktorego tesia. <https://tel.archives-ouvertes.fr/tel-01806475/document> (19/12/2023).
- Padilla-Moyano, Manuel. 2022. *Juseff Eguiatéguyren «Aberatzarsun gussièn guils bakhoitza» (1782) eskuizkribuaren edizio kritikoa*. *Egan* 75(1-2). 42-244.
- Peillen, Txomin. 1984. Zuberoako euskalkiaren, Basaburuko motaz, ohar batzu. *Euskera* 29(1). 249-254.
- Peillen, Txomin. 1992. Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk. In Gotzon Aurrekoetxea & Xarles Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra (IKER 7)*, 247-272. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Peillen, Txomin. 2011. *Egiategiren Filosofo huskaldunaren ekheia, bigarren liburukia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 1999 Zuberoa Garaiko mintzaeraren eredu bat *FLV* 80. 155-163.

- Sarasola, Ibon. 1983. *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos (ASJUren Gehigarriak 11)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Segurola Azkonobieta, Koro. 2015. *Sainte Elisabeth de Portugal pastoralaren eskuizkribua. Azterketa kodikologikoa*. Eskuizkribua.
- Segurola Azkonobieta, Koro & Antón Ugarte. 2021. Jusef Egiategiren *Aberatztarzun gussién guils bakhoitza* (1782) eskuizkribuaz gehiago. *Egan* 74(1-2). 105-124.
- Ugarte, Antón. 2020. El manuscrito «encontrado» de *Aberatztarzun gussién guils bakhoitza* (1782) de Juseff Eguiatéguy. *BAP* 46(1/2). 561-572.
- Vinson, Julien. 1891. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: Maisonneuve (Berrarg, Donostia: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», 1984).
- Zuazo, Koldo. 1989. Zubereraren sailkapenerako. *ASJU* 23(2). 609-650.

